

Euskalgintzarako giro egokia

Euskaldunon Egunkaria, 1991-04-13: 3.

Kultura bakoitzak badu ekintzetarako egokia den sasoia bereizteko esaldia; Azkueren *Euskalerriaren Yakintza*-n bilatu dut, eta hara hemen aukerako bat: "Arbi errea abenduko, gauza guztiak bere garaiko".

Aspaldikoa dena, baina gaur eta hemen euskaldunoi nahi duguna adierazteko ederki datorkiguna.

Hau da Barandiaranek dion kulturaren "altxorraz" baliatzea.

Euskalgintzarako denbora ez ditu lurraren emaitzak jasotzeko eman behar diren pauso zehatzak eskatzen; kulturari dagokionez, ez da kimua landatzeko edo hazia ereiteko urtaro jakinik hain garbi ikusten, baina zentzu batean gonbaragarri dira gizarteko ideialen ereintza, asmoen zabalkundea eta herrien ziklo historikoa.

Zer du berezirik gaur bizi dugun giroak?

Batetik, gurea dela, guri dagokigun erantzukizunpean dagoela; besterik, perspektiba hau geuk, gerauetako bakoitzak, izan dezakegun bakarrak gara; alegia, hau ez dela historia orokorrak ematen diguna, geuk bizi izan dugunak baizik.

Geuk ezagutu ditugun aiton-amonak Sabin Aranaren garaikoak ziren. Neuk gertuen dudan enxerplu xumea erabiltzeko, Zeraingo goiherritarra nuen *aitona Gregoriok* beherantzeko bidean Ordizia-Tolosako emaztearekin beheterrira, Andoaina, heldu zen zurginak egin zituen "Txitibar" baserrian herriko lehen Batzokiko lanak; eta gero San Martin elizako sakristau izan zenean Sabinen argazia paretean esekita zeukalako erretore karlistak "hura" handik kentzeko agindu zionean aitona erantzun omen zion: "Bizardun horrek hemendik joan behar badu, berarekin irtengo da zurgin kaskazuri hau". Honen semea, *nire aita* andoaindarra, izan genuen (afusilatua izango zen Nemesiorekin batera), dantzari txikitako irakasle, ordurako Inazioko taberna gainean zegoen Batzokian, eta ordurarte karlistek irabazi bazuten ere, Errepublikara garaian (1931-36) EAJk irabazi zituen hauteskundeak, eta bertako zinegotzi izan zen; gerra etorri zenean lehen Eusko Jaurlaritzak jarri zuen errespetua, egitaratu zuen armada, borrokatu zen bere Ikurrinarekin, eta Jaurlaritzan parte hartu zuten sozialista eta komunista gehienak exilioan Agirre Lehendakariarekin geratu zirelako bere partiduetatik egotziak izan ziren. *Nire belaunaldian*, exilioan eta barruan, abertzale euskaldunak izan ziren diktaturaren aurka gehien eta gogorren borrokatu zirenak; Eliza euskalduna nabarmenki; eta Jaurlaritza zutunik mantendu zuten (Agirre eta Leizaola) Franco hil zen arte. Gure *seme-alabek* berezko bezala ikusten dute gaur abertzaleak osatzen duten Eusko Jaurlaritza autonomoan gehiengo handia (orain EAJ, EA, EE), eta oraindik hemendik kanpo dagoen HB alderdi abertzalea instituzioetan lehialki sartzen denean, berebiziko indar euskaldun abertzalea izan daiteke, Agirrek nahi zuen bezala, *Europa barruan bere hitza esateko gauza izateko*.

Ifarraldea eta Nafarroa ere hemen izango dira (edo han izango gara geu!) bere kabuz hau erabakitzen dutenean, eta aurkituko da 2000 urtean, XXI. gizaldian sartzeko. Herria oso eta euskaldun.

Hau, ikusi nahi duenarentzat, berez bezala etorri dela ikustea ez da zaila; eta ikusi nahi duenak ikusten duenez, fedeak ekintzarik badu, ez dira kataleju handiak behar horretarako. Sabin Arana Goiriren amets handi hura egi bihurtuko zaigu bihar. Munduan sarri eta arlo guztietan gertatu den bezala. Ez baigara gizakiok lehengoekin bakarrik konformatzen. Zeren eta nondik nora espero zezaketeen Sozialista Sobietarren inperio indartsuaren mende zeuden herriak gaur lortzen ari diren askatasun bideak? Nork igarri Estatuaren porrota eta Herriek hartzen ari diren eskubideen kemena?

Mirakuluak ez dira bada Ekialdean bakarrik gertatuko.

Hemen ere badugu asko sufritu eta borrokatu ondoren, itxaropen honetarako eskubidea. Orain arteko politika handien zampaketa izan den bezala, etorri daiteke, eta etorriko da gu geu elkartzeko gauza bagara, geure herriaren ezagutza.

Ez da inposatutako batasunik beharrezko, demokrazian elkar hartzea da nahiko.

Larramendik orain dela bi gizaldi t'erdi eskatzen zuena.

Seinale asko ari gara ikusten azken aldi honetan laster martxan jarri daiteken giroa egokia; eta euskalgintzarako sasoia etorri bada, zergatik izango gara gerauek irteten hasi den askatasun eguzkia eskuaz estaltzeko.

Neuk niri dagozkiten seinale batzu eman ditut hemen eredurako; zerorren, irakurle, zurei begiratu besterik ez duzu beste hainbeste zeure begiekin edo zure familiako beste zarragoanerakin ikusteko; behetik gora goaz mende honetan, historiak garamatza orain arte inoiz ez bezala.